

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 48/2017 Foru Dekretua, abuztuaren 3koa, aldatzen duena otsailaren 9ko 17/2016 Dekretua, Ingurumen eta Hirigintza Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoa**

Nola onartuta dagoen 1/2017 Foru Araua, gardentasunarena, beharrezkoa da aldatzea Ingurumen eta Hirigintza Sailaren egitura dekretua, jakiteko zein eginkizun beteko duen kasuan kasuko administrazio unitateak, politika publikoen, gardentasunaren eta herritarren parte hartzearen ebaluazioaren arloan.

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuaren bidez, Ingurumen eta Hirigintza Sailaren egitura organiko eta funtzionala onartu zen, zeinak hau jasotzen baitu 5. eta 9. artikuluetan:

5.1. k artikulua: Zuzendaritzari hau egozten dio: "Zuzendaritzaren barruan gardentasuna, herritarren partaidetza eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erabilera sustatzea"

9.l). artikulua. Ingurumen eta Hirigintzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuari hau egozten dio: "Zuzendaritzaren barruan gardentasuna, herritarren partaidetza eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erabilera garatu eta erraztea"

Ingurumen eta Hirigintza Sailak erabaki zuen Ingurumen eta Hirigintzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak beteko dituela egun 1/2017 Foru Arauan jasoriko gardentasun, herritarren parte hartze eta informazioa eskuratzeko eskubidea egikaritzeko betekizunak.

Egitura dekretuan 1/2017 Foru Arauak jasoriko betekizunak jasotzeko, beharrezkoa da dekretu hori aldatzea, eta Ingurumen eta Hirigintzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuari egotzi betekizun hau:

"Politika publikoen, gardentasunaren eta herritarren parte hartzearen ebaluazioa kudeatzea, sailaren eskumeneko arloetan, otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenak, xedatzen duen moduan."

Ondorioz, aldatu egin behar da Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuaren 9.l) artikulua, zeinak Ingurumen eta Hirigintzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren betekizunak jasotzen baititu. Hona hemen aldaketa:

Hau dioen lekuan:

"Zuzendaritzaren barruan gardentasuna, herritarren partaidetza eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erabilera garatu eta erraztea."

Hau esan behar du:

"Politika publikoen, gardentasunaren eta herritarren parte hartzearen ebaluazioa kudeatzea, sailaren eskumeneko arloetan, otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenak, xedatzen duen moduan."

Halaber, 17/2016 Dekretuaren 6. artikuluari (Administrazio unitateen buruen eginkizun orokor-  
rrak) beste idatz zati bat (k idatz zatia) erantsi behar zaio, Arabako Lurralde Historikoko sektore  
publikoko gardentasunari, herritarren parte hartzeari eta gobernu onari dagokionez sailaren  
gainerako administrazio unitateekin izan beharreko lankidetzaz sartzeko han. Honela idatzita  
geratuko da:

“k). Ahalik eta laguntza gehiena ematea otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde  
Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenak,  
loturik dauzkan eginkizunak bere gain hartzen dituen zuzendaritzaren administrazio unitateari”

Horregatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu  
Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Eranstea 17/2016 Dekretuaren 6. artikuluari k) idatz zati berria, honela:

#### **“6. artikulua. Administrazio unitateen buruen eginkizun orokorrak**

k). Ahalik eta laguntza gehiena ematea otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde  
Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenak,  
loturik dauzkan eginkizunak bere gain hartzen dituen zuzendaritzaren administrazio unitateari”

Bigarrena. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuaren 9.I)  
artikulua, honela:

Hau dioen lekuan:

“Zuzendaritzaren barruan gardentasuna, herritarren partaidetza eta informazio publikoa  
eskuratzearen eskubidearen erabilera garatu eta erraztea.”

Hau esan behar du:

“Politika publikoen, gardentasunaren eta herritarren parte hartzearen ebaluazioa kudeatzea,  
sailaren eskumeneko arloetan, otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko  
sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenak, xedatzen  
duen moduan.”

Hirugarrena. Dekretuaren gainerako edukia berdin uztea.

Laugarrena. Onartu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean foru dekretu hau,  
ALHAOn noiz argitaratu gorabehera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abuztuaren 3a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZALEZ VICENTE**

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*

**JOSEAN GALERA CARRILLO**